

**DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2024****ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA**

1. Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa (EPE)	2
2. Alokairua sustatzeko dirulaguntzak	3
3. Gaztelagun programa	7
4. Babes publikoko etxebizitzak salgai	9
5. Partikularrek eta auzo komunitateek birgaitze-obrak egiteko dirulaguntzak, etxebizitzaren bizigarritasuna hobetzeko, eraikinen egitura zaindu eta mantentzeko, desgaitasuna duten pertsonen sarbidea errazteko eta energia-kontsumoa murrizteko	11
6. MRR Next Generation Funtsak, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko bizitegi-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren arlokoak – Europar Batasunak finantzatua – 2,3,4 eta 5 programak	15
7. Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetan kudeaketa-sistemak ezartzeko, iraunkortasuna sustatzeko eta berrikuntza bultzatzeko laguntzak, ERAIKAL 2024 programa	17
8. Birgaitze integraleko eta efizienteko obra komunitarioetarako finantza-neurriak	19
9. Toki-erakundeentzako dirulaguntzak, irisgarritasun unibertsaleko plan integralen bidez irisgarritasun unibertsaleko estrategia ezartzeko eta plan horietan aurreikusitako jarduerak gauzatzeko	21



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa (EPE)

2.- Araua

3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.

147/2023 Dekretua, urriaren 10ekoa, etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzkoa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena (2015eko ekainaren 26a EHAA 119 zk.)

147/2023 Dekretua, urriaren 10ekoa, etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzkoa (2023ko urriaren 25eko EHAA, 204 zk.) (2023ko urriaren 25eko EHAA, 204. zk.)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legeak etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortzen du, etxebizitza babestu bat edo bizitoki babestu bat alokairuan jarritz, baita etxebizitza libre bat ere, bitartekaritza-programengatik edo beste batzuegatik eskuragarri badago.

Etxebizitzarik edo bizitokirik ezean, eta subsidiarioki, prestazio ekonomikoen sistema bat ezarriz egin ahal izango da ordainketa hori.

Alokairu-erregimeneko etxebizitza edo bizitoki bat eskatzaileen esku jarriko dela bermatu nahi da, eta, halakorik ezean, prestazio ekonomiko baten bidez.

147/2023 Dekretuak ESaren eta EPEaren kudeaketa eta izapidetzea garatzen ditu, eta 2024ko apirilaren 2an sartu zen indarrean.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024ko abenduan 17.390 eskubide aitortu dira, 2.866 etxebizitza esleitu dira eta 8.393 prestazio eman dira. Gainera, Lanbidek transferitutako 4.954 espedientek aldi baterako kobratzen dute EPE, ESa aitortzeko eskaera izapidetu arte. 2024an 11.000 pertsonak kobratu dute guztira prestazioa: 4.686 gizonek eta 6.314 emakumek.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
DSV aitortua duten etxe unitateen kopurua	10.000	17.390
Ordainketa PEV	5.272.000	23.092.000



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Alokairua sustatzeko dirulaguntzak

2.- Araua

3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena

BOEen araubidea:

- 39/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoa. (2008ko martxoaren 28ko EHAA, 59. zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzailen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak eta araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA, 211. zk.)
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honako agindu honen hutsak zuzentzeko dena: «Agindua, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzailen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak eta araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa». (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).

BOEen gehieneko prezioak:

- AGINDUA, 2022ko ekainaren 30ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, babes publikoko etxebizitzaren gehieneko errentak eta prezioak eta zuzkidura-bizitokiaren kanona zehazteari buruzkoa (2022ko uztailaren 14ko EHAA, 136. zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzailen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak eta araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA, 211. Zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honako agindu honen hutsak zuzentzeko dena: «Agindua, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzailen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak eta araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa». (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).

Alokairua sustatzea:

- AGINDUA, 2021eko abenduaren 7koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitzaren eta bizitegi-eraikinen alokairua eta beste erabilera-modu batzuk sustatzeko jardueri buruzkoa. (2021eko abenduaren 20ko EHAA, 252. zk.).
- AGINDUA, 2024ko maiatzaren 29koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, 2024an etxebizitzaren eta lurzorua arloan babes daitezkeen hainbat



jarduketetarako laguntzak finantzatzeko esleitutako kredituen zenbatekoak argitara ematen dituen. (2024ko ekainaren 7ko EHAA, 111.zk.)

Lankidetzeta-hitzarmena finantza-erakundeekin:

- 210/2019 DEKRETUA, abenduaren 26koa, kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzakoa etxebizitzaren eta lurzorua arloan, eta etxebizitzaren arloko neurri osagarriena. (2020ko urtarrilaren 20ko EHAA, 12. zk.)
- AGINDUA, 2024ko maiatzaren 29koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, 2024an etxebizitzaren eta lurzorua arloan babes daitezkeen hainbat jarduketetarako laguntzak finantzatzeko esleitutako kredituen zenbatekoak argitara ematen dituen.

ASAP (alokairu segurua, arrazoizko prezioa), merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko bitartekaritza-programa:

- 144/2019 DEKRETUA, irailaren 17koa, ASAP (alokairu segurua, arrazoizko prezioa) merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko bitartekaritza-programa arautzen duena. (2019ko irailaren 30eko EHAA, 185. zk.)
- AGINDUA, 2021eko irailaren 17koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-programen zenbatekoak eguneratzen dituen. (2021eko urriaren 15eko EHAA, 206. zk)

Arrazoizko alokairua

- AGINDUA, 2022ko urriaren 14koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, arrazoizko alokairuari buruzkoa. (2021eko urriaren 15eko EHAA, 206 zk)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

3/2015 Legea, etxebizitzarena. (2015eko ekainaren 26a EHAA 119 zk.)

AGINDUA, 2024ko maiatzaren 29koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, 2024an etxebizitzaren eta lurzorua arloan babes daitezkeen hainbat jarduketetarako laguntzak finantzatzeko esleitutako kredituen zenbatekoak argitara ematen dituen. (2024ko ekainaren 7ko EHAA, 111 zk.)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua etxebizitza eskuratzea da, baliabideak lehentasunez alokairura bideratuta. Errentamendu babesturako etxebizitzaren sustapena diruz lagundu nahi da, alokairu babesturako etxebizitzaren erosketa diruz lagundu eta zuzkidura-bizitokiaren sustapena diruz lagundu. Errentamendua sustatzeko ildo horretan, landa-inguruneke udal-etxebizitzak birgaitzeko dirulaguntzak ematen dira.



Alokairu babesturako etxebizitzak aldi baterako lagapena ere sartzen da; etxebizitza horiek Jaurlaritzaren jabetzakoak dira eta kolektibo jakin batzuei zuzenean esleituta daude.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatze eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

ERRENTAMENDUAREN SUSTAPENA

Norgehiagokarik gabeko dirulaguntzak dira, errentamendua sustatzeko dirulaguntzak, hau da, alokairu babesturako etxebizitzak sustatzeko dirulaguntzak; etxebizitzak alokairu babestuan jartzeko erosteko dirulaguntzak; eta zuzkidura-bizitokiak sustatzeko dirulaguntzak, eta landa-inguruneetan udal-etxebizitzak birgaitzeko dirulaguntzak, Urtero, sailburuaren agindu bidez, dirulaguntzen lerro horretara bideratutako kredituak argitaratzen dira.

2024ko ekitaldiko aurrekontu-zuzkidura urte anitzeko 31.000.000 eurokoa da 2024/2026.

2024an, ebatzitako errentamendua sustatzeko laguntzak honako hauek izan dira:

- Errentamendu babesturako laguntzak: 5 eta 27 etxebizitzako bi sustapen, guztira 1.642.500,00 €-ko dirulaguntzarekin.
- Zuzkidura-bizitokiak: 93 EELko sustapena, 4.650.000,00 €- dirulaguntzetan.
- Alokairu eskuragarriko laguntzak: 177, 12, 26 eta 88 etxebizitzako hiru sustapen, 18.495.000,00 € dirulaguntzetan

Bestalde, Sailak 181 EEL hasi ditu Donostian, 98ko sustapen bat eta 83ko beste bat.

Gainera, alokatzeko beste 624 etxebizitza hasi dira: 42 Sailarenak eta 582 Visasarenak

BITARTEKARITZA-PROGRAMA MERKATU LIBREKO ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO ASAP

ASAP (alokairu segurua, arrazoizko prezioa) merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko bitartekaritza-programaren helburua da titulartasun pribatuko etxebizitzak alokairu-merkatuan sartzea erraztea, errentarientzat arrazoizko prezioan (1. helburuaren 11.b adierazlea, 2024ko Etxebizitza Programaren Memorian).

Aseguru-poliza moduko berme-sistema bat ezartzen da, estaliko dituen ez-ordaintzeak, balizko kalteak eta laguntza juridikoa, hutsik dauden etxebizitzak jabeek programan parte har dezaten sustatzeko.

Jabeei eskainitako bermeen truke, Eusko Jaurlaritzak, etxebizitzaren arloan eskumena duen sailaren bitartez, alokairuen gehieneko prezioak finkatzen ditu, merkatu librean baino prezio baxuagoak eta lehiakorragoak bermatuz, eta, horrela, egoera sozio-ekonomikoa dela-eta merkatu horretatik kanpo geratzen diren etxebizitza-eskatzailak alokairuko etxebizitza eskuratzeko aukera handiagoak izango dituztela ziurtatuz.

Eusko Jaurlaritzak Bitartekaritzan Agente Laguntzaileen Sare bat sortu du, eta sare horrek bere gain hartuko ditu programa hori abian jartzeko eta funtzionatzeko eginkizun garrantzitsu batzuk.

Sortu zenetik eta 2024an, 19 agente laguntzailek eman dute izena programan, lurraldeka honela banatuta:



- Araba: 1
 - Bizkaia: 3
 - Gipuzkoa: 11
 - Alokabide: bulegoak ditu hiru lurraldeetan.
 - Erakunde bat, ETIKALIA, bulegoak Araban eta Bizkaian dituena
 - Bidebi Basaurirako
 - Sestaoberri Sestaon.
 2024an, ASAPen etxebizitza-parkeak 186 etxebizitza ditu.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Alokairuko sustapen berriak	750	805
EELk eta etxebizitzak errentamendua sustatzeko programan	100	125
ASAP programa	500	186
Alokairu eskuragarriko etxebizitza berriak	250	323



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gaztelagun programa

2.- Araua

- * 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.
- * AGINDUA, 2018ko abenduaren 18koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, Gaztelagun programako etxebizitzak alokatzeko laguntzak arautzen dituen eta laguntzetarako deialdia egiten duena.
- * AGINDUA, 2019ko abenduaren 10ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita Gaztelagun programako etxebizitzak alokatzeko laguntzak arautzen eta deitzen dituen Agindua.
- * AGINDUA, 2021eko irailaren 17koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuarena, etxebizitza-programen zenbatekoak eguneratzekoa.
- * AGINDUA, 2022ko apirilaren 26koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, Gaztelagun Programako etxebizitzak alokatzeko laguntzak arautzen dituen.
- * Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren eta Alokabide SA sozietate publikoaren arteko hitzarmena, Gaztelagun programako alokairurako laguntzak kudeatzeko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena argitaratzea (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2018ko abenduaren 18koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, Gaztelagun programako etxebizitzak alokatzeko laguntzak arautzen dituen eta laguntzetarako deialdia egiten duena. (2018ko abenduaren 28ko EHAA 249 zk)

AGINDUA, 2019ko abenduaren 10ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita Gaztelagun programako etxebizitzak alokatzeko laguntzak arautu eta horietarako deialdia egiten duen Agindua (2019ko abenduaren 17ko EHAA, 239. zk.)

AGINDUA, 2021eko irailaren 17koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuarena, etxebizitza-programen zenbatekoak eguneratzekoa. (2021eko urriaren 15eko EH:AA, 526. zk.)

AGINDUA, 2022ko apirilaren 26koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, Gaztelagun Programako etxebizitzak alokatzeko laguntzak arautzen dituen. (2022ko maiatzaren 6koa EHAA 87. zk)

AGINDUA, 2024ko maiatzaren 29koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, 2024an etxebizitzaren eta lurzoruen arloan babes daitezkeen hainbat jardueratarako laguntzak finantzatzeko esleitutako kredituen zenbatekoak argitara ematen dituen. (2024ko ekainaren 7ko EHAA, 111 zk.)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzen programaren helburua etxebizitza eskuratzea da, baliabideak lehentasunez alokairura bideratuz, gazteen emantzipazioa errazteko.



2024ko ekitaldian 7.500 ebazpen ematea da helburua.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Ekitaldi honetan emandakoetan diruz lagundutako zenbatekoa, guztira: 5.769.216,75 €.

Alokabidek, programa kudeatzen laguntzen duenez, 1.020.950 euro jaso ditu kudeaketa-gastuengatik.

2024ko abendurako 2.638 eskabide zeuden aktibatuta Gaztelagun programan: 473 Araban, 1.424 Bizkaian eta 741 Gipuzkoan. Eskaera horietatik 1.156 gizonenak dira, 1.479 emakumeenak eta 3 espediente daude datu hori ez dutenak. Pertsona bakoitzeko batez besteko errenta 685,63 eurokoa izan da, eta dirulaguntza 249,77 eurokoa, hau da, errentaren gaineko dirulaguntzaren % 54,05ekoa. Dirulaguntza 5.182.894,22 eurokoa izan da.

Programa hasi zenetik, 8.251 eskabide aktibatu dira, eta 251,03 euroko dirulaguntza eman da batez beste. Batez besteko errenta 674,41 eurokoa da.

Hasieratik emandako dirulaguntzen zenbatekoa 25.372.855,20 €koa da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Alokairua ordaintzeko prestazioen gazte onuradunen kopurua	7.500	8.251



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Babes publikoko etxebizitzak salgai

2.- Araua

3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.

39/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaaren inguruko finantza-neurriei buruzkoa. (2008ko martxoaren 28^a EHAA 59 zk.).

268/2011 DEKRETUA, abenduaren 20koa, kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzoruaaren arloan. (2011ko abenduaren 30eko EHAA 247 zk.)

AGINDUA, 2022ko ekainaren 30ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, babes publikoko etxebizitzaren gehieneko errentak eta prezioak eta zuzkidura-bizitokien kanona zehazteari buruzkoa. (2022ko uztailaren 14 EHAA 136 zk.)

210/2019 DEKRETUA, abenduaren 26koa, kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzakoa etxebizitzaren eta lurzoruaaren arloan, eta etxebizitzaren arloko neurri osagarriena. (2020ko urtarilaren 20^a EHAA 12 zk.)

2019rako finantza-lankidetzarako HITZARMENA kreditu-establezimenduekin, etxebizitzaren eta lurzoruaaren arloko jarduketa babesgarriei buruzkoa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena argitaratzea (EHAAri Hiperesteka)

3/2015 Legea, etxebizitzarena (2015eko ekainaren 26a EHAA 119 zk.)

AGINDUA, 2024ko maiatzaren 29koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, 2024an etxebizitzaren eta lurzoruaaren arloan babes daitezkeen hainbat jardueratarako laguntzak finantzatzeko esleitutako kredituen zenbatekoak argitara ematen dituena. (2024ko ekainaren 7ko EHAA, 111. zk.)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua etxebizitza duin eta egokia lortzen laguntzea da.

Etxebizitza libre erabilia erosteko dirulaguntzak eman nahi dira, baldin eta hiri-eremu espezifikoetan eta Birgaitze Integratuko Eremuetan eta eremu degradatuetan badaude, jarduketa integratuetan lagunduta.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Urtero, sailburuaren agindu bidez, erabilitako etxebizitza librea erosteko kredituak argitaratzen dira. Erabilitako etxebizitza librea erosteko 2024ko aurrekontu-zuzkidura 400.000 €-koa izan zen. 2024an, erabilitako 168 etxebizitza libre erosteko ebatzi da, eta guztira 150.574,96 €-ko dirulaguntza eman da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Erositako etxebizitzaren kopurua		168



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Partikularrek eta auzo komunitateek birgaitze-obra egiteko dirulaguntzak, etxebizitzaren bizigarritasuna hobetzeko, eraikinen egitura zaindu eta mantentzeko, desgaitasuna duten pertsonei sarbidea errazteko eta energia-kontsumoa murrizteko

2.- Araua

BOEen araubidea:

- 39/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruen inguruko finantza-neurriei buruzkoa. (2008ko martxoaren 28ko EHAA 59 zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak eta araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA 211 zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honako agindu honen hutsak zuzentzeko dena: «Agindua, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak eta araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa». (2012ko abenduaren 28a EHAA 251 zk.)

BOEen gehieneko prezioak:

- AGINDUA, 2022ko ekainaren 30ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, babes publikoko etxebizitzaren gehieneko errentak eta prezioak eta zuzkidura-bizitokiaren kanona zehazteari buruzkoa. (2012ko uztailaren 14ko EHAA 136 zl)
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak eta araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA 211 zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honako agindu honen hutsak zuzentzeko dena: «Agindua, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak eta araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa». (2012ko abenduaren 28ko EHAA 251 zb.)

Etxebizitza birgaitzea:

- 117/2018 Dekretua, uztailaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoari buruzkoa. (2018ko irailaren 5eko EHAA, 171 zb)
- AGINDUA, 2021eko uztailaren 21ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza eta eraikinak birgaitzeko, irisgarritasunerako eta energia-



eraginkortasunerako jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei buruzkoa. (2021eko irailaren 9ko EHAA 180 zb)

- 80/2014 DEKRETUA, maiatzaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoan IAT arautzen duen Dekretua aldatzen duena. . (2014ko maiatzaren 30eko EHAA, 101. zk)

Lankidetzeta-hitzarmena finantza-erakundeekin:

- 210/2019 DEKRETUA, abenduaren 26koa, kreditu-erakundeek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzakoa etxebizitzaren eta lurzoruen arloan eta etxebizitzaren arloko neurri osagarrien arloan. (2020ko urtarrilaren 20ko EHAA 12 zk.)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena argitaratzea (EHAAri Hiperesteka)

3/2015 Legea, etxebizitzarena. (EHAA 119, 2015. URTEA)

AGINDUA, 2023ko ekainaren 7koa, 2023ko etxebizitza-kredituen publizitatearena. (2023ko ekainaren 16ko EHAA 114 zk.)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Eraikitako parkea birgaitzen laguntzeko helburu orokorraren barruan, dirulaguntzen lerroa dago, partikularrek eta auzo-komunitateek birgaitze-obrak egin ditzaten etxebizitzaren bizigarritasuna hobetzeko, eraikinen kontserbazioa eta egitura-mantentzea hobetzeko, desgaitasunen bat duten pertsonen sarbidea errazteko eta energia-konsumoa murrizteko.

Dirulaguntzak herritarrei eta jabeen komunitateei zuzenduta daude.

Sistema EAEn diharduten kreditu-erakundeek maileguak ematean oinarritzen da (administrazioaren eta kreditu-erakundeek arteko finantza-hitzarmenaren esparruan). Horren gainean zuzeneko dirulaguntzen eta maileguen interes-puntuen subsidioen sistema bat egituratzen da, arauz ezarritako babes-kasu zehatz eta tasatuetan.

Jarduera babestuak, interes-subsidioen kasuan, etxebizitza babestura bideratutako lurzorua erosteko eta urbanizatzeko eta alokairuko etxebizitzak sustatzeko baino ez dira biltzen.

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen kasuan, lurzoruari eta alokairuari buruzko aurreko bi lerro horiei etxebizitzak eta eraikinak birgaitzea eta etxebizitza libre erabiliak erostea gehitu zaie.

Laguntza-modalitateak jarduera-tipologiaren arabera ezartzen dira, eta diskriminazio-sistema progresibo batekin, onuradunen errenta-mailaren eta lurralde-intentsitate erlatiboaren arabera.

2021eko uztailean birgaitzeko agindu berri bat onartu zen, obra horietarako hobekuntza garrantzitsuekin.

2022ko ekitaldian, bi aginduak daude indarrean, agindu berria indarrean jarri aurretik ebatzi gabe zeuden eskabideen ebazpena dela eta.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Etxebizitzak birgaitzeko maileguen dirulaguntzak:

Helburuan. EUSKADIN ALOKAIRU ESKURAGARRIA SUSTATZEA 2024ko etxebizitza-programan, 7. adierazlea-Sistemari finantza-hitzarmenaren bidez emandako finantziakzioa adierazlean, 60 milioi euroko helburua ezarri da, eta 4,4 milioi eurora iritsi da.

2024an 5 mailegu onartu dira, 4.356.156,18 €-ko zenbatekoarekin. Horietatik 3 diruz lagundu dira, 4.300.000,00 euroko zenbatekoarekin.

Birgaitzeko dirulaguntzak:

Etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko partikularrei eta jabeen erkidegoei zuzendutako laguntza-programaren esparruan, Etxebizitza Sailak 39,3 milioi euroko laguntzak eman ditu guztira, 17.158 etxebizitza eta 3.517 lokal birgaitzeko.

	EAE	LLHH		
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
ETXEBIZITZA KOP.	17.158	2.071	9.258	5.829
LOKAL KOP.	3.517	369	1.876	1.272
KOMUNITATE KOP.	1.174	138	607	429
DIRULAGUNTZA (€)	39.327.592	5.024.556	20.230.874	14.072.162

1. LERROA: Partikularren obrak

	T01: Kontserbazio- eta bizigarritasun- obrak	T2: Energia- efizientzia hobetzeko obrak	T3: Irisgarritasun a hobetzeko obrak	T4: Eraikuntzaren akabera orokorra eraikuntza onaren printzipioetara egokitzeko obrak	Guztira
Dirulaguntzaren zenbatekoa	803.210,43		382.364,51	271.888,91	1.457.463,85
Aurrekontu babesgarria	2.282.250,17	170.013,29	643.864,31	1.062.958,27	4.159.086,04
Dirulaguntza jaso duten etxebizitzaren kopurua	179		101	81	283

2. LERROA: OBRA KOMUNITARIOAK

Komunitatearentzako laguntzak

	T1: Kontserbazio- eta bizigarritasun- obrak	T2: Energia- efizientzia hobetzeko obrak	T3: Irisgarritasun a hobetzeko obrak	Guztira
Dirulaguntzaren	14.602.404,05	1.771.146,70	12.512.248,2	28.885.799,00
Aurrekontu babesgarria	81.112.931,15	14.993.419,7	65.838.857,5	161.945.208,41
Etxebizitza kopurua	9.751	546	7.492	16.812
Komunitate kopurua	685	42	506	1.174



	2. LERROA: Komunitateen obrak			
	Partikularrentzako laguntzak			
	T1: Kontserbazio-, eta bizigarritasun-obrak	T2: Energia-efizientzia hobetzeko obrak	T3: Irisgarritasun a hobetzeko obrak	Guztira
Dirulaguntzaren zenbatekoa	3.440.827,73	602.489,59	4.941.011,83	8.984.329,14
Etxebizitza kopurua	29		40	62
Lokal kopurua	1	42	2	3

Etxebizitzen baturak ez du zertan guztizkoarekin bat etorri, etxebizitza batzuek dirulaguntza jasotzen baitute kontzeptu bat baino gehiagorengatik. Gauza bera gertatzen da komunitateekin.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazleen emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Birgaitutako etxebizitzen kopurua	19.454	17.158
Lokal kopurua		3.517
Komunitate-kopurua		1.174
Instalatutako igogailuen kopurua	500	506
Efizientzia energetikoa hobetu duten etxeen kopurua	5.000	546

Ahal izan den neurrian, energia-eraginkortasuna hobetzen duten birgaitzeak Next funtsetara bideratu dira.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

MRR Next Generation Funtsak, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko bizitegi-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren arlokoak – Europar Batasunak finantzatua – 2,3,4 eta 5 programak

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko ekainaren 21ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena. Honen bidez, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan jasotako energia-eraginkortasuna sustatzeko bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko laguntza-programen oinarriak ezarri eta laguntza horietarako deialdi publikoa arautzen da. Errege Dekretu horren bidez, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko bizitegi-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren arloko 3., 4. eta 5. programak arautzen dira. - Europar Batasunak finantzatua – NextGenerationEU

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena argitaratzea (EHAARI Hiperesteka)

2022ko ekainaren 30ean, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko ekainaren 21eko AGINDUA argitaratu zen. Agindu horren bidez, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko bizitegi-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren arloko 3., 4. eta 5. programak arautzen dituen urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan jasotako bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko laguntzen programen oinarriak ezarri eta laguntza horietarako deialdi publikoa arautu zen. Europar Batasunak finantzatua – NextGenerationEU

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2022/06/2202988a.pdf> castellano

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2022/06/2202988e.pdf> euskera

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Espainiako berreskuratze- eta erresilientzia-planaren ebaluazioa onartzeari buruzko 2021eko ekainaren 16ko Erabakiari (CID, ingelesezko siglak), Programa honen laguntzak eman eta gauzatzeari buruzkoari, eranskinean ezarritako helburuak betetzeko, programa honetako laguntzak eman eta gauzatzeak honako hauek betetzen lagunduko du:

a) CIDen 27. helburua: etxebizitzak berritzeko jarduketak amaitzea, batez beste gutxienez lehen mailako energiaren % 30 aurreztuz (7.773 etxebizitza), 2023ko laugarren hiruhilekoan.

b) CIDen 29. helburua: etxebizitzak berritzeko jarduketak amaitzea, batez beste lehen mailako energiaren % 30 aurreztuz (17.246 etxebizitza), 2026ko bigarren hiruhilekoan.

Programei eta haien definizioari dagokienez:

2. programa. Birgaitze-bulegoei laguntzea.

3. programa: eraikina birgaitzeko jarduketetarako laguntza.

4. programa: etxebizitzetan energia-eraginkortasuna hobetzeko jarduketetarako laguntza,

5. programa: eraikinaren liburua egiten laguntzea.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Hasieratik, 22.484 etxebizitzatarako 4.644 eskaera jaso dira. 3.131 espedientek aldeko ebazpena dute, 16.393 etxebizitzari dagozkie, eta horietatik 13.685 etxebizitza bakarrik dira. 132.711.694,11 euroko dirulaguntzak eman dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Birgaitzeko prozesuan dauden etxebizitzaren kopurua (2024ra arte)	15.546	13.685

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetan kudeaketa-sistemak ezartzeko, iraunkortasuna sustatzeko eta berrikuntza bultzatzeko laguntzak, ERAIKAL 2024 programa

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko ekainaren 11koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektorean kudeaketa-, eraikuntza- eta arkitektura-kalitatea eta jasagarritasuna sustatzeko eta berrikuntzari laguntzeko sistemak ezartzeko 2024ko ekitaldirako laguntzak arautu eta horietarako deialdia egiten duena (ERAIKAL 2024 programa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Agindua.- - <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/06/2403004e.pdf>

Ebazpena. – EHAAn argitaratu gabea

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

ERAIKALEk Euskal Autonomia Erkidegoan bizitegi-eraikuntzaren sektorea eraldatzen eta sektore sendo, lehiakor eta eraginkor bihurtzen lagundu behar duen tresna gisa ezartzen da, enpresetan etengabeko hobekuntzara bideratutako kudeaketa-praktikak ezarriz. Praktika horiek beharrezkoak dira herritarrei lan-prozesu seguruen, kalitatekoen eta ingurumena errespetatzen duten prozesuen pean egindako etxebizitzak eskaintzeko, haien premien eta, oro har, gizartearen premien arabera.

Etengabeko hobekuntza handitzea lehiakortasunerako oinarritzko osagaia denez, baina ez nahikoa, ERAIKALEk berrikuntza sustatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektorean, sektore horren oraina ez ezik etorkizuna ere bermatzeko.

Aginduan zehaztutako ekintzetarako aurrekontu-zuzkidura, guztira, 1.070.000,00 eurokoa da. Zenbateko hori honela banakatuko da dirulaguntzen lerro bakoitzeko:

- lerrorako, berrikuntza-proiektu edo -azterlanetarako, 250.000,00 euro bideratuko dira gehienez.
- ildoari dagokionez (tresna informatikoak garatzea, dibulgazio-kanpainak, jardunaldiak eta prestakuntza-ikastaroak garatzea), 150.000,00 euro bideratuko dira gehienez.
- lerrorako (bizitegi-eraikuntzaren sektoreko pertsona fisiko edo juridikoentzako kudeaketa-sistemak ezartzea eta ziurtatzea), 100.000,00 euro bideratuko dira gehienez.
- lerroan, bizitegi-eraikinetarako ziurtagiriak ezarri eta egiaztatzeko, 20.000,00 euro erabiliko dira gehienez.
- lerrorako (bizitegi-eraikuntzako eraikuntza-prozesuen industrializazioari buruzko azterlan, proiektu eta prototipo espezifikoak) 550.000,00 euro bideratuko dira.



Eskaerarik ez egoteagatik edo baldintzak ez betetzeagatik ez bada agortzen adierazitako jardun-ildoetako baterako esleitutako zenbatekoa, beste jardun-ildo bati esleitutako zenbatekoa handitu ahal izango da. Soberakina, lehenik, V. lerroan aplikatuko litzateke; gero, I. lerroan; hirugarrenik, II. lerroan; laugarrenik, IV. lerroan; eta, azkenik, III. lerroan, Agindu honen 16. artikuluan aurreikusitako organo ebaluatzaileak ildo horretan egiten duen proposamenaren arabera. Inguruabar hori Etxebizitza sailburuordeak dirulaguntzak emateko ematen duen ebazpenean jasoko da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeke eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

I. LERROA: Dirulaguntzaren zenbatekoa 241.524,36 €, Diruz lagundutako proiektuak: 8
II. LERROA: Dirulaguntzaren zenbatekoa: 131.131,94 €, Diruz lagundutako proiektuak: 5
III. LERROA: Diruz lagundutako zenbatekoa: 75.446,25 €, Diruz lagundutako proiektuak: 35:
- ISO 9001:2015 13 proiektu diruz lagundu dira
- ISO 14001:2015 diruz lagundutako 12 proiektu
- ISO 14006 diruz lagundutako proiektu 1
- ISO 19650:2019. Diruz lagundutako proiektu 1
- ISO 45001 diruz lagundutako 8 proiektu.
IV. LERROA: Diruz lagundutako zenbatekoa: 4.925,00 €, Diruz lagundutako proiektuak: 2
V. LERROA: Diruz lagundutako zenbatekoa: 616.972,45 €, Diruz lagundutako proiektuak: 5. 9 eskatu ziren, baina aurrekontu-partida nahikoa ez zelako, 5 baino ez ziren eman.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako proiektuen kopurua	80	55



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Birgaitze integraleko eta efizienteko obra komunitarioetarako finantza-neurriak

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko uztailaren 21ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza eta eraikinak birgaitzeko, irisgarritasunerako eta energia-eraginkortasunerako jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei buruzkoa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

2021eko irailaren 9an argitaratu zen Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko AGINDUA, etxebizitza eta eraikinak birgaitzeko, irisgarritasunerako eta energia-eraginkortasunerako jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei buruzkoa.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/09/2104690a.pdf> gaztelania

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/09/2104690e.pdf> euskera

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

1.- Birgaitze integral eta efizienterako Erkidegoko obretarako finantza-neurriak. Birgaitze-obrek batera eta aldi berean energia-eraginkortasuna, irisgarritasuna eta segurtasuna barne hartzen dituen esku-hartze proiektu baten irismen orokorra dutenean, gutxienez etxebizitza-erabilera nagusia duen bizitegi-tipologia kolektiboko eraikin oso baten suteetarako. Era berean, esku hartzeko proiektuek etxebizitzaren kanpoko bizigarritasuna hobetzeko jarduketak jaso ahal izango dituzte.

EITren txostenak 1., 2. edo 3. mailako obrak jasotzen dituenen, akats horiek konpontzera bideratutako obrak egiteko aurreikuspena jaso beharko du esku-hartzeak.

2.- Birgaitze integral eta efizienterako obra komunitarioetarako finantza-neurrietan (3. lerroa), diruz lagun daitezkeen honako kostu hauei dagozkien partidak hartuko dira aurrekontu babesgarritzat:

a) Txostenak, ziurtagiriak eta proiektuak idazteko eta obren zuzendaritza fakultatiborako ordainsari profesionalak, baldin eta horiek ezinbestekoak badira diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko, zergak alde batera utzita. Era berean, eta hala badagokio, Eraikinaren Ikuskapen Teknikoa idazteko ordainsari profesionalen kostuak.

b) Diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko ezinbestekoak diren obrak gauzatzea, betiere proiektua onartu ondoren eta obra-amaierako ziurtagiriaren data baino lehen gauzatu, ziurtatu eta fakturatu diren zergak alde batera utzita.

3. – Laguntzaren xede diren familia anitzeko eraikinak 1980a baino lehen eraiki behar dira, eta eraikin horiek hirigintza- eta egitura-egokitzapena izan behar dute, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan ezarritako baldintzetan.

4. – Ez dira diruz lagunduko jenderik gabeko eraikinak, aurri-egoeran daudenak edo aurri-egoeran egon daitezkeenak.



5. – Ez dira diruz lagunduko eskabidea aurkezteko unean hasita dauden edo lizentzia duten obrak, ez egituraren finkapena, ez eraikinaren konponketa (fatxadak, estalkiak, etab.), ez etxebizitzaren kopurua handitzeko eraikinen birgaitze integrala.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

787 etxebizitzari dagozkien 35 eskaera jaso ziren, jasotako eskaeretatik 10ek atzera egin dute eta 5ek aurkako ebazpena jaso dute. 14 ebatzi dira, 2021eko uztailaren 21eko Aginduaren kargura emandako dirulaguntzaren zenbatekoa 4.401.211,52 € izanik. Urteko zenbatekoak honela banatu dira:

2024 660.181,73 €,
 2025 1.402.886,18 €,
 2026 1.402.886,18 €.
 2027 935.257,43 €.

Gainerako eskabideak (6) zuzentzeko fasean daude.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Birgaitutako etxebizitzaren kopurua	2.000	221



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Toki-erakundeentzako dirulaguntzak, irisgarritasun unibertsaleko plan integralen bidez irisgarritasun unibertsaleko estrategia ezartzeko eta plan horietan aurreikusitako jarduerak gauzatzeko.

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko azaroaren 14koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integralen bidez Irisgarritasun Unibertsaleko Estrategia ezartzeko eta bertan aurreikusitako jarduerak gauzatzeko toki-erakundeentzako dirulaguntzak arautu eta horietarako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

DEIALDIAREN AGINDUA

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/11/2305212a.pdf>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/11/2305212e.pdf>

EBAZPENA

<https://www.euskadi.eus/web01->

[tramite/eu/contenidos/informacion_publica/resol_accesibilidad_2024/eu_def/index.shtml](https://www.euskadi.eus/web01-tramite/eu/contenidos/informacion_publica/resol_accesibilidad_2024/eu_def/index.shtml)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Xedea

Aginduaren xedea da, salbuespen gisa, EAEko toki-erakundeei dirulaguntzak ematea arautzea eta horien deialdia egitea, Irisgarritasun Unibertsala Sustatzeko Plan Integralak (aurrerantzean, IUSPI) egiteko dagokion jarduera-eremuan, edo dauden irisgarritasun-planak eguneratzeko, bai eta plan horietan aurreikusitako jarduerak gauzatzeko ere.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

a) 1. ildo. – Irisgarritasun unibertsaleko plan integralak egitea eta idaztea, IUSPI

b) 2. ildo. – Irisgarritasun-arloko jarduketak burutzea, IUSPIetan aurreikusitakoak.

Irisgarritasun fisiko, sensorial eta kognitiboko beharretara egokitzeko ingurune fisikoan jarduteko proposamenak diruz lagunduko dira, baldin eta honako talde hauetakoren batean sartzen badira:

– Ibilbide irisgarriak diseinatzea igogailuak edo plataforma jasotzaile bertikalak, zerbitzu higienikoak eta aldagela egokituak instalatuz, bai hiri-ingurunean, bai eraikinen barruan.

– Hiri-inguruneen eta eraikinen seinaleztapena hobetzea, pertsona guztientzat ulargarria izan dadin. Horretarako, wayfinding orientazio- eta mugikortasun-baliabideak erabiliko dira, sinbolo edo piktograma unibertsalak txertatuko dira, edo informazioa eta orientazioa hobetuko duten sistemak edo teknologiak sartuko dira, hala nola begizta magnetikoak edo alerta- edo abisu-sistema irisgarriak.



Erakunde onuradunak

Euskal Autonomia Erkidegoko udalak, mankomunitateak, udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeak eta koadrilak izango dira laguntza hauen onuradunak.

Lerro bakoitzean erakunde bakoitzari eman dakioken gehieneko zenbatekoak ezin izango ditu honako zenbateko hauek gainditu:

- 1. lerroa: 50.000 euro.
- 2. lerroa: 500.000 euro.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Dirulaguntzen deialdirako bost milioi (5.000.000,00) euro bideratu ziren, honako banakapen honen arabera:

- 2024. urtea: milioi bat euro (1.000.000,00).
- 2025. urtea: bi milioi euro (2.000.000,00).
- 2026. urtea: bi milioi euro (2.000.000,00).

Laguntza zer jardueratarako eskatzen zen aztertu ondoren, Balorazio Epaimahaiak 54 jarduera egiteko dirulaguntzak ematea proposatu zuen: 39 irisgarritasun unibertsaleko plan integralak idazteko eta 15 hiri-igogailuren obrak egiteko.

Lurralde Historikoa	Erakunde onuradun mota	Erakunde kopurua	1. lerroa	2. lerroa
Araba	Udalak	8	8	0
Bizkaia	Udalak	13	11	5
Gipuzkoa	Udalak	24	20	10
Guztira		45	39	15

Deialdiaren aginduan aurreikusitakoaren arabera, 5.000.000 euroko dirulaguntzak eman ziren, honela banatuta:

Udalei eta toki-erakunde txikiei dagokienez diruz lagundutako irisgarritasun unibertsaleko plan integralei dagokienez, 1. lerroan 629.971,05 euroko dirulaguntzak onartu ziren. Plan horietan onartutako irisgarritasun-aurrekontuei dagokienez egindako inbertsioak 773.701,24 euroko inbertsioa dira, zergak kenduta.

2. lerroko jarduketa-proposamenei dagokienez, 4.370.028,95 euroko dirulaguntzak eman dira. Obra horietan onartutako irisgarritasun-aurrekontuei dagokienez egindako inbertsioek 7.712.840,55.- €-ko inbertsioa dakarte, zergak kenduta.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Irisgarritasun-planen eta -obren proiektuen kopurua 2021-2023 Etxebizitza Bideratzeko Planean onartutako jarraipen- magnitudeak		54